Las pruebas para la obtención de la credencial consistirán en la demostración del conocimiento de la normativa relacionada con el servicio de taxi, el conocimiento del municipio, centro oficiales etc. Asimismo, las pruebas deberán ser superadas en, al menos, un ochenta por ciento de su totalidad.

## IV. KAPITULUA
## LIZENTZIAK ESKUALDATZEA

***11. artikulua. Lizentzien eskualdakortasuna.***

1) Lizentziak eta baimenak eskualdaezinak dira, kasu hauetan izan ezik:

a) Jabea hiltzean, ezkontide alargunaren edo legezko oinordekoen alde.

b) Erretiroa hartzean.

c) A) paragrafoan aipatzen diren ezkontide alarguna edo oinordekoek ezin dutenean lizentzia jarduera bakar eta esklusibo gisa ustiatu.

d) Jabea lanerako ezintasun iraunkorrean gertatzen denean, gaixotasuna dela, istripua dela edo ustekabekotzat jo daitezkeen beste arrazoi batzuk direla. Horretarako, jabeak, egokitzat jotzen duen beste edozein dokumentazio eta Osasun Publikoko Zerbitzuak eginiko txostena aurkeztu

## CAPÍTULO IV
## DE LA TRANSMISIÓN DE LAS LICENCIAS

***Artículo 11. Transmisibilidad de las licencias.***

1) Las licencias y autorizaciones son intransmisibles, salvo en los siguientes supuestos:

a) Por fallecimiento de su titular, a favor de su cónyuge viudo/a, o herederas legítimas.

b) En caso de jubilación.

c) Cuando el cónyuge viudo/a, o los herederos/as a los que se refiere el apartado a) no puedan explotar la licencia como actividad única y exclusiva.

d) Cuando se imposibilite de manera permanente para el ejercicio profesional la titular, por motivo de enfermedad, accidente u otros que puedan calificarse de fuerza mayor. A tal efecto, la titular, sin perjuicio de cualquier otra documentación que estime pertinente, deberá presentar informe emitido

behar ditu, gorabehera hura egiaztatuz, Udalak eska dezakeen azterketa osagarriak bazterutzi gabe.

e) Lizentziaren titulartasunak hamar urte baino gehiago dituenean. Tokiko erakundeak baimendu ondoren eskualda daiteke, eta ezin izango da beste lizentzia bat lortu udalerri berean hamar urteko epean, ordenantza honetan ezarritako inolako eratan.

2) Eskualdatzea Astigarragako Udalak baimendu behar du, horretarako eskaera egin ondoren; baina, horretarako, erosleak baimenaren jabe izateko ordenantza honetan ezarritako beharkizun eta baldintza guztiak bete behar ditu.

Eskaera egin zenetik hiru hilabete igaro eta berariazko ebazpena jakinarazi ez bada, ezetsitzat jo ahal izango da administrazio-isiltasunaren bidez. Dena den, udalak ebazpena eman behar du, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 24. artikuluan ezarritakoa betez.

Behin eskualdatzea baimenduta, hura jakinarazten denetik hilabetea igaro baino lehen, jabeak idatzi bat aurkeztu behar du, jabe izan nahi duenarekin batera, non biek jakinaraziko duten eskualdatzeearen eraginkortasuna, jabeak lizentziari uko egin izana eta lizentzia jabe berriari ematea (jakinarazpenak egiteko jabe berriaren datuak, korreo elektronikoa eta helbidea emango dira). Azken idatziarekin batera, lizentziaren hautagaiak behar den dokumentazioa aurkeztu behar du, taxi lizentziaren jabe izateko behar diren baldintzak betetzen dituela frogatzeko.

Halaber, jabe berriak adierazi behar du ezagutzen duela Taxiaren Legearen eta horren Erregelamenduaren edukia eta baita ordenantza hau ere, Administrazioak onartutako erakunde batek eginiko ziurtagiriaren bidez.

Eskualdatzeko baimena lortzeko nahiz jabe berria izateko eginiko eskaera izapide bakar batean egin daiteke prozesua laburtzeko. Dena den, atal honetan 2. paragrafoan ezarritako epea aplikatuko da.

Bestalde, jabe berriak eskualdatzailearen prestazioak mantenduko ditu (taxi irratia, ibilgailu egokitua eta abar).

Azkenik, baldin eta jabe berria ez bada taxi irratiren baten kide, bere udalerrian zerbitzua

por el Servicio Público de Salud que acredite dicha circunstancia, sin perjuicio de exámenes adicionales instados desde el propio Ayuntamiento.

e) Cuando la titularidad de la licencia tenga antigüedad superior a diez años. Se podrá llevar a cabo la transmisión, previa autorización de la entidad local, no pudiendo obtener nueva licencia, dentro del mismo municipio, en el plazo de diez años por ninguna de las formas establecidas en esta Ordenanza.

2) La transmisión deberá ser autorizada por el Ayuntamiento de Astigarraga previa petición cursada a tal efecto, y siempre que la nueva adquirente cumpla la totalidad de requisitos y condiciones establecidos en la presente Ordenanza para ser titular de la misma.

Transcurrido el plazo de tres meses desde la solicitud sin notificarse la resolución expresa, se podrá deducir desestimada por silencio administrativo, sin perjuicio de la resolución que el Ayuntamiento debe dictar en cumplimiento de lo establecido en el artículo 24 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Una vez autorizada, y antes de transcurrir un mes desde su notificación, la persona titular presentará un escrito, junto a la pretendiente titular, en el que ambas comunicarán la efectividad de la transmisión, comunicando, en el mismo, la renuncia de la persona titular a la licencia y solicitando el otorgamiento a la nueva persona titular, de la cual se facilitarán su datos personales, correo electrónico y domicilio de notificación. Junto a este último escrito, la candidata a la nueva licencia deberá aportar la documentación necesaria para acreditar el cumplimiento de las condiciones necesarias para ser titular de licencia de taxi.

Asimismo, la nueva persona titular deberá manifestar que conoce el contenido de la Ley y del Reglamento del Taxi así como de la presente Ordenanza, a través de una certificación emitida por una entidad reconocida por la Administración

Tanto la solicitud para obtener la autorización de transmisión como la dirigida al otorgamiento de nuevo titular puede ser instada en un único trámite por economía procesal, siendo de aplicación, en todo caso, el plazo establecido en el párrafo 2.º del presente apartado.

Por otra parte, la nueva persona titular deberá mantener las prestaciones del transmitente (Radio Taxi, Vehículo adaptado etc.).

eskaintzen duen hartan erkidetu behar da, edo Astigarraga kide den zerbitzua emateko eremu berezian eskaintzen den hartan, edo lurralde osoari zerbitzua eskaintzen duen hartan.

Por último, si la nueva persona titular no se encuentra asociada en ningún Radio-Taxi, deberá asociarse en aquél que dé servicio en su municipio, en la zona especial de prestación del servicio a la que pertenezca Astigarraga, o en el que da servicio a toda la provincia.

3) Lizentziak eta baimenak ezin eskualdatu ahal izango dira, Udala eta Foru Aldundia, hurrenez hurren, haiek iraungitzeko edo aldi baterako eteteko prozedura izapidetzen ari badira.

3) No podrán ser objeto de transmisión las licencias y autorizaciones cuando el Ayuntamiento y la Diputación Foral, respectivamente, estén tramitando procedimiento de extinción o suspensión temporal de las mismas.

4) Eskualdatutako lizentziari dagokion ibilgailua aurretik esleituta zeukan bera izan daiteke, lizentziaren hartzaileak, aldi berean ibilgailu hura erosten duenean, edo, jabe berriak jartzen duen beste bat izan daiteke, ibilgailuak ordezkatzeko baldintzak betetzen badira, behintzat. Egokitutako ibilgailuari dagokion lizentzia denean, haren eskualdatzeak ez du ekarriko, inolaz ere, egokitutako taxi kopurua murriztea.

4) El vehículo a que se refiera la licencia transmitida podrá ser el mismo al que anteriormente estuviera referida, cuando el/la adquirente de ésta hubiera, a su vez, adquirido la disposición sobre tal vehículo o bien ser otro distinto aportado por el nuevo/a titular, siempre que se cumplan los requisitos para la sustitución de vehículos. Cuando se trate de licencia adaptada con carácter inherente, su transmisión, en ningún momento, podrá suponer la disminución de la flota de taxis adaptados.

5) Dena den, ezinbestekoa izango da Udalak lizentzia eskualdatzea baimentzeko, alorreko legerian tipifikatutako urraketaren batengatik bide administratiboan finkoa den ebazpenaren bidez ezarritako diruzko zigorrak ordaintzea, urraketak lizentzia horren jabeek eginikoak direnean.

5) En todo caso, el pago de las sanciones pecuniarias impuestas por resolución firme en vía administrativa por alguna de las infracciones tipificadas en la legislación del sector, será requisito necesario para que el Ayuntamiento autorice la transmisión de las licencias en relación con las cuales hayan cometido sus titulares dichas infracciones.

6) Lizentziak ezingo dira eskualdatu Udalak modu ofizialean jakiten duenean haiek organo judizial edo administratiboak bahitu egin dituela.

6) No se podrá transmitir las licencias cuando el Ayuntamiento tenga conocimiento oficial de que se ha procedido al embargo de aquéllas por órgano judicial o administrativo.

## V. KAPITULUA

## LIZENTZIAK IRAUNGITZEA

***12. artikulua. Lizentziak iraungitzea eta bertan behera uztea.***

1) Lizentzia iraungi egiten da jabeak uko egin diolako, baliogabetu delako edo iraungi delako, 2000ko ekainaren 29ko 2/2000 Legean (turismo ibilgailuetan bidaiarien hiri eta herriarteko garraio publikoarena) eta hori garatzeko Erregelamenduan ezarritako erregimenaren arabera.

2) Araudi horretan ezarritakoz gain, iraungi egiten da baliogabetzen denean:

a) Lizentziaren oinarrizko baldintzak ez betetzean.

b) Behin eta berriz urraketa oso larriak egiten

## CAPÍTULO V

## DE LA EXTINCIÓN DE LAS LICENCIAS.

***Artículo 12. Extinción y revocación de las licencias.***

1) La licencia se extingue por la renuncia de su titular, anulación y caducidad de acuerdo con el régimen establecido en la Ley 2/2000 del 29 de junio de Transporte Público Urbano e Interurbano de viajeros en Automóviles de Turismo y normativa de desarrollo.

2) Además de lo establecido en dicha normativa se extingue, por su revocación, cuando:

a) Se incumplieren las condiciones esenciales de la licencia.

direnean edo jarritako zigorra ordaintzen ez denean. Ondorio horietarako, ulertzen da urraketa behin eta berriz egin dela, urraketa egin baino aurreko hamabi hilabeteetan, urraketaren arduraduna, ebazpen finkoaren bidez, zigortua izan denean oso larritzat jotzen den urraketa batengatik.

c) Gaitzen duten tituluen ikus-onespena urtebetez egin gabe izateagatik. Epe hori ikus-onespena egiteko epea hasten denetik hasten da kontatzen, eskaera ez egitea jabeei egotzi ezin daitekeenean izan ezik.

d) Egokitasun arrazoiak tarteko. Kasu horretan, lizentziaren jabeak Astigarragako Udalak ezarritako kalte-ordaina jasoko du, merkatu azterketetan oinarritutakoa eta alorreko elkarte esanguratsuen parte hartzearekin ezarritakoa.

b) Por la comisión reiterada de infracciones muy graves o con quebranto de la sanción impuesta. A estos efectos, se entiende que existe reiteración cuando en los doce meses anteriores a su comisión, la responsable de la misma haya sido objeto de sanción mediante resolución firme por infracción tipificada como muy grave.

c) Por el transcurso de un año sin llevar a cabo el visado de los títulos habilitantes. Este plazo comienza a contar desde el momento que se inicia el plazo para solicitarlo, excepto cuando la falta de solicitud no sea imputable al titular de los mismos.

d) Concurrencia de razones de oportunidad. En este caso, la titular de la licencia será indemnizada en el precio establecido por el Ayuntamiento de Astigarraga, con fundamento en estudios de mercado y con la participación de las Asociaciones más representativas del sector.

## III. TITULUA
## IBILGAILUAK
## I. KAPITULUA.
## ARAU OROKORRAK

### *13. artikulua. Lizentziari atxikitako ibilgailua.*

1) Lizentziaren jabeek ibilgailu bat atxiki behar diote lizentziari, eta ibilgailua zerbitzua eskaintzeko erabili ahal izatea Udalak baimendu behar du.

Ibilgailu horiek ordenantzak aipatzen dituen zerbitzuak eskaintzeko erabiliko dira eta han adierazitako zehaztapenekin. Debekatua dago bestelako xede publikoetarako edo profesionaletarako erabiltzea, Udalak arrazoitutako eta oinarritutako berariazko baimena izan ezik.

2) Udal lizentziak zehaztuko du zerbitzuak zenbat lagun eraman ditzaken edo «zerbitzu-leku» dituen (bidaia dezaketen pertsona kopurua, gidaria barne).

Oro har, berariazko beste zehaztasun baten ezean taxi lizentziaren bidezko zerbitzuak bost plaza bitartekoak izango da,  eta, gorabehera hori ibilgailuaren fitxa teknikoaren bidez egiaztatuko da. Dena den, lizentzia bakarra izatearen beharra egiaztatuta, salbuespen gisa:

a) Ibilgailu egokituek bederatzi eserleku izan ditzakete, Astigarragako Udalaren berariazko ebazpenaren bidez, eskualdeko taxi batzordeak txostena egin ondoren.

## TÍTULO III
## DE LOS VEHÍCULOS
## CAPÍTULO I.
## NORMAS GENERALES

### *Artículo 13. Vehículo adscrito a la licencia.*

1) Las titulares de la licencia deberá tener adscrito a la misma un vehículo, cuya utilización en el servicio deberá ser autorizada por el Ayuntamiento.

Estos vehículos deberán destinarse a la prestación de los servicios a que se refiere esta Ordenanza y bajo las especificaciones de la misma, quedando prohibido su uso para otros fines públicos o profesionales, salvo autorización expresa, motivada y fundamentada del Ayuntamiento.

2) La licencia municipal determinará una capacidad máxima de prestación del servicio o «capacidad de servicio» (número de personas viajeras, incluida la persona conductora).

Con carácter general, y a falta de otra determinación expresa, la capacidad de servicio de las licencias de taxi será de hasta cinco plazas, circunstancia que se deberá acreditar mediante la ficha técnica del vehículo. No obstante, y justificada la necesidad individual de cada licencia y con carácter excepcional:

a) Los vehículos adaptados podrán ser ampliado hasta nueve, mediante resolución expresa del Ayuntamiento de Astigarraga previo informe de la

b) Ordezko energia erabiltzen duten ibilgailuek, depposituak edo bateriak behar duten lekua dela-eta, baimena izan dezakete bost eserleku baino gehiagoko fitxa teknikoa izateko, baina, kasu horretan, zerbitzuak gehienez bost eserleku eskainiko ditu. Gorabehera hori ibilgailuaren fitxa teknikoa aldatuta egiaztatuko da.

3) Udal lizentzia berria eskatzen denean, hura atxikitzen den ibilgailua ezin izango da bi urte baino zaharragoa izan lehen matrikulaziotik kontatzen hasita, edozein herrialdeetan inskribaturik dagoelarik ere. Denbora muga hori ez da aplikatuko lizentzia atxikitako ibilgailuarekin batera eskualdatzen denean.

4) Atxikitako ibilgailuei udal azterketa egingo zaie atxikipena egin aurretik, zerbitzuari eta hori arautzen duen araudiari egokitzen diren frogatzeko.

Egokitzapen azterketa atxikipena egin aurretik egin daiteke edo udal lizentzia indarrean dagoen edozein unetan. Hala, hori egitea jabeari eskatuko zaio eta epe bat emango zaio ikuskapena udal bulegoetan edo horretarako adierazten den lekuan egiteko.

5) Astigarragako Udalak baimena eman dezake ibilgailuaren barruan edo kanpoan publizitatea kontratatzeko, haren itxura eta edukia onartuta, eskualdeko taxi batzordeak txostena egin ondoren.

Comisión del Taxi de la Comarca.

b) Los vehículos de energías alternativas, por motivos de espacio de los depósitos o baterías podrán ser autorizados con fichas técnicas superiores a cinco plazas, pero en este supuesto, la capacidad máxima de servicio será de hasta cinco plazas, circunstancia que se deberá acreditar mediante la modificación de la ficha técnica del vehículo.

3) En el momento en que se solicite nueva licencia municipal, el vehículo al cual se adscribe no podrá tener una antigüedad superior a dos años desde su primera matriculación, cualquier que sea el país en el que la misma se haya inscrito. Esta limitación temporal no será de aplicación en los supuestos de transmisión de licencias con el vehículo adscrito.

4) Los vehículos adscritos podrán ser objeto de revisión municipal antes de su adscripción a efectos de comprobar su adecuación al servicio y a la normativa que lo rige.

La revisión de adecuación podrá llevarse a cabo antes de su adscripción o en cualquier momento de vigencia de la licencia municipal. A tal efecto, se procederá a su requerimiento al titular, otorgándose un plazo para la correspondiente inspección en dependencias municipales o en el lugar que se indique a tal efecto.

5) El Ayuntamiento de Astigarraga podrá otorgar la autorización para contratar la publicidad, interior o exterior del vehículo, aprobando la forma y contenido de la misma, previo informe de la Comisión del Taxi de la Comarca.

## II. KAPITULUA

## ATXIKITAKO IBILGAILUA ALDATZEA ETA ESKUALDATZEA

### *14. artikulua. Aldatzea. Ordezko ibilgailua.*

1) Lizentziaren jabeak hari atxikitako ibilgailua alda dezake. Horretarako, interesatuak idatziz eskatu behar du nahitaezko udal baimena; eta, baimena emango da baldintza teknikoen egokitasuna eta zerbitzua eskaintzeko beharrezkoa den dokumentazioa zuzen dagoela egiaztatu ondoren.

2) Ibilgailuak istripua edo matxura edo bestelako ustekabeko gorabeherak izanez gero, atxikitako ibilgailuaren zerbitzua eskaintzea eragozten dutenak, jabeak zerbitzua eskaintzen jarrai dezake, egoera iragankorrak irauten duen

## CAPÍTULO II

## SUSTITUCIÓN Y TRANSMISIÓN DEL VEHÍCULO ADSCRITO

### *Artículo 14. Sustitución. Vehículo de sustitución.*

1) La titular de la licencia podrá sustituir el vehículo adscrito a la misma. A tal efecto, la interesada solicitará, por escrito, la preceptiva autorización municipal, que se concederá una vez comprobada la idoneidad de las condiciones técnicas, así como la corrección de la documentación precisa para su prestación.

2) En el supuesto de accidente o avería del vehículo, así como en otras circunstancias excepcionales que impidan la prestación del servicio con el vehículo adscrito, la titular podrá continuar prestando el

bitartean, lizentziari atxikitako ibilgailuaren antzeko ezaugarriak dituen eta indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen gainerako baldintzak betetzen dituen ibilgailu batekin.

Horretarako, Udalean aurkeztu behar du berariazko baimen eskaera, ordezko ibilgailua erabili behar izateko izandako salbuespenezko gorabeheren egiaztagiriarekin eta ibilgailu horren zirkulazio baimenaren kopiarekin batera.

Egoera iragankor hori hiru hilabete baino gehiago luzatzen bada, eskaera berria egin eta Udalaren berariazko ebazpena beharko da.

Behin-behinekoz ordezkatzea behartu zuten gorabeherak gaindituta, lizentziaren jabeak Udalari jakinarazi behar dio, hamar egun naturaleko epean, berriz zerbitzua eskaintzen hasi dela lizentziari hasieran atxikitako ibilgailuarekin, eta ordezko ibilgailua baja emanda geratuko da lizentziaren atxikipenetik.

servicio, durante el tiempo que dure la situación transitoria, mediante un vehículo de similares características al adscrito a la licencia y que cumpla el resto de requisitos exigidos por la normativa vigente.

A tal efecto, deberá presentar en el Ayuntamiento solicitud de autorización expresa junto con justificación de las circunstancias excepcionales que motivan el uso del vehículo de sustitución y copia del permiso de circulación del mismo.

El vehículo que sustituya al originalmente adscrito a la licencia tendrá temporalmente el carácter de adscrito a la misma. En el supuesto de que esta situación de carácter transitorio lo sea por plazo superior a tres meses, se precisará nueva solicitud y resolución expresa del Ayuntamiento.

Una vez superadas las circunstancias que le obligaron a sustituirlo provisionalmente, el/la titular de la licencia deberá notificar al Ayuntamiento, en el plazo de diez días naturales, la vuelta a la prestación del servicio con el vehículo originalmente adscrito a la licencia, quedando automáticamente dado de baja de adscripción a dicha licencia, el vehículo de sustitución.

***15. artikulua. Ibilgailua eskualdatzea.***

Udal lizentziari atxikitako ibilgailua *“inter vivos”* eskualdatzen bada, hura baliogabetu egingo da, baldin eta, lizentziaren jabeak, aldi berean, lizentziari beste ibilgailu bat ez badio atxikitzen, Administrazioak aztertu eta baimendu ondoren.

***Artículo 15. Transmisión del vehículo.***

La transmisión «inter vivos» del vehículo adscrito a la licencia municipal dará lugar a su revocación, salvo que, de manera simultánea, la titular de la licencia adscriba a ésta un nuevo vehículo, previamente revisado y autorizado por la Administración.

## III. KAPITULUA

## IBILGAILUEN BEREIZGARRIAK

***16. artikulua. Bereizgarriak.***

Edozein bereizgarri, plaka eta matrikula trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruz indarrean dagoen araudiak xedatutakoari egokituko zaio.

## CAPÍTULO III

## DE LOS DISTINTIVOS DE LOS VEHÍCULOS

***Artículo 16. Distintivos.***

Cualquier distintivo, placa, así como matrícula deberá ajustarse a lo dispuesto en la normativa vigente sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial.

## IV. KAPITULUA

## IBILGAILUEN EZAUGARRIAK

***17. artikulua. Ibilgailuen ezaugarri fisikoak.***

## CAPÍTULO IV

## DE LAS CARACTERÍSTICAS DE LOS VEHÍCULOS

***Artículo 17. Características físicas de los***

1) Udalak baimendu behar du erabiltzaileari edo zerbitzua eskaintzeko erari eragiten dion ibilgailuen edozein ekipamendu berezi.

2) Taxi zerbitzuen lizentziei atxikitako ibilgailuek egoera onean egon behar dute, seguruak izan dira, behar bezala funtzionatu eta garbi egon behar dute, kanpotik nahiz barrutik.

Dena den, indarrean dagoen legeriak jasotzen dituen ezaugarri guztiak bete behar dituzte, zehazki, Turismo ibilgailuetako bidaiarien herri barneko eta herriarteko garraio publikoari buruzko Legearen Erregelamenduan adierazitakoak.

3) Zehazki, ibilgailuek baldintza hauek bete behar dituzte:

a) Ibilgailuak barrutik dituen gutxieneko neurriak eta ezaugarriak, eta eserlekuenak, zerbitzuaren erabiltzaileari segurtasuna eta erosotasuna eskaintzeko behar bezalakoak izango dira.

b) Karrozeria itxia izango dute, ateak oso irisgarriak (gutxienez lau) eta 330 litro baino gehiagoko maletategia.

c) Aurreko eta atzeko eta leihotxoko kristalak gardenak eta hautsi ezinezkoak izango dira, eta berariaz debekatzen da haiek erabat edo zati batean estaltzea.

d) Ibilgailuen tapizatua egoera onean egongo da, barrualdeari garbitasun eza eta zaintza txarraren itxura emango lioken narriadura, adabaki edo bestelako kalterik gabe; eta ahaleginduko da hura kolore batekoa izatea, eta ez dira erabiltzen utziko desegokiak direnak, haien kalitatea eta marrazkia tarteko.

e) Barruan argiak izango dituzte –su-itzalgailua ere izango du– eta aire girotua edo klimatizagailua.

f) Mekanismo egokia izango du erabiltzaileak leihotxoak nahi duenean irekitzeko.

g) Zorua erraz garbi daitekeen goma edo beste material batez estali daiteke, ondo erantsita eta urradurarik gabe.

4) *“Egokitutako”* edo aldi baterako *“egokitutako”* lizentziek ezinduentzako egokitutako ibilgailu bat izango dute atxikita, garraioaren irisgarritasunari buruz indarrean dagoen araudiaren arabera.

Egokitutakoa gisa gaitzen duten ezaugarriak ezin izango dira aldatu ibilgailua zerbitzuan dagoenean, Astigarragako Udalaren berariazko baimenik gabe.

*Egokitutako* edo aldi baterako *egokitutako*

***vehículos.***

1) Cualquier equipamiento especial de los vehículos que afecte a la persona usuaria o a la forma de prestación del servicio, deberá ser autorizado por el Ayuntamiento.

2) Los vehículos adscritos a licencias de servicio de taxi deberán estar en buen estado de conservación, seguridad, funcionamiento y limpieza, tanto exterior como interior.

En todo caso, deberán cumplir con todas las características recogidas en la legislación vigente y, en concreto, las señaladas en el Reglamento de la Ley de Transporte Público Urbano e Interurbano de viajeros en Automóviles de Turismo.

3) En concreto, los vehículos deberán cumplir los siguientes requisitos:

a) Las dimensiones mínimas y las características del interior del vehículo y de los asientos serán las precisas para proporcionar a la usuaria la seguridad y comodidad propias del servicio.

b) Serán de carrocería cerrada, con puertas de fácil acceso, en número de cuatro, como mínimo, y con una capacidad de maletero superior a 330 litros.

c) Los cristales de las lunetas delantera y posterior y las ventanillas serán transparentes e inastillables, prohibiéndose expresamente su ocultamiento total o parcial.

d) El tapizado de los vehículos se encontrará en buen estado, sin deterioros, parches u otros desperfectos que impriman al interior el aspecto de poca limpieza y mala conservación, y se procurará que aquél sea del mismo color, no permitiéndose lo que, por su calidad y dibujo, resulten inadecuados.

e) Estarán dotados de alumbrado interior, provisto de extintor de incendios y equipado con aire acondicionado o climatizador.

f) Deberán hallarse dotados del mecanismo conveniente para accionar las ventanillas a la voluntad de la persona usuaria.

g) El piso podrá protegerse con cubiertas de goma u otro material fácilmente lavable, bien adosadas y sin roturas.

4) Las licencias con carácter inherente o temporal de «adaptadas», deberán tener adscrito a las mismas un vehículo adaptado a personas discapacitadas, de acuerdo con la normativa vigente de accesibilidad al transporte.

Las características que lo habilitan como adaptado

lizentziarekin zerbitzua eskaintzen duen ibilgailuak terminal mugikorra izango du, eta haren zenbakia, zerbitzuari atxikia, Udalari jakinaraziko dio jabeak. Zenbaki hori ezagutzera emango da taxi egokituko zerbitzuan erabiltzeko, bidezkotzat jotzen diren baldintzetan. Lizentziari atxikitako edozein telefono zenbakiren aldaketa Udalari jakinarazi behar zaio.

5) Taxi zerbitzura atxikitako ibilgailuak Trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko araudiak jasotzen dituen baldintzak bete behar ditu, lege mailakoak zein erregelamendu mailakoak, eta zirkulazioari buruzko gainerako araudiak, bereziki, haizetako-garbigailuei, atzerako ispiluari, kanpoko argiei eta abarri dagokienez.

no podrán ser modificadas cuando el vehículo esté en servicio, sin la autorización expresa del Ayuntamiento de Astigarraga.

Todo vehículo en servicio de una licencia con carácter inherente o temporal de adaptada, deberá disponer de una terminal móvil operativa, cuyo número, adscrito al servicio, será facilitado por su titular al Ayuntamiento. Este número podrá hacerse público para su uso en el servicio de taxi adaptado, en los términos que se estime oportunos. Cualquier cambio del número de teléfono adscrito a la licencia deberá ser comunicado al Ayuntamiento.

5) Los vehículos automóviles adscritos al servicio de auto taxi deberán cumplir las exigencias contenidas en la normativa sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial, tanto de rango legal como reglamentario y demás normativa circulatoria y en especial en aspectos como aparatos limpiaparabrisas, espejo retrovisor, alumbrado exterior etc.

## V. KAPITULUA

## UDAL AZTERKETAK ETA IKUSKATZEAK

***18. artikulua. Aurre azterketak, ohikoak eta apartekoak.***

1) Ez da zerbitzuan ibilgailurik jarriko udal baimena izan gabe. Horretarako, lehenengo, Eusko Jaurlaritzako dagokion sailak (IAT) eta Astigarragako Udalak aztertuko dute, segurtasun, zaintza eta dokumentazioari dagokienez.

2) Zerbitzuari atxikitako ibilgailuei indarrean dagoen araudiak ezartzen dituen aldizkako azterketan egingo zaizkie eta baita Astigarragako Udalak eskatutako aparteko guztiak.

Azterketak gainditzen ez dituzten ibilgailuek ezin izango dute zerbitzua eskaini, antzemandako akatsak konpondu arte, eta hori horrela dela udal ikuskaritza zerbitzuek baieztatu arte.

***19. artikulua. Udal ikuskaritzaren betebeharra.***

1) Ikuskaritza ofizioz egingo da edo interesatutako erakunde edo pertsona fisikoak eginiko salaketaren ondorioz.

## CAPÍTULO V

## DE LAS REVISIONES E INSPECCIONES MUNICIPALES

***Artículo 18. Revisiones previas, ordinarias y extraordinarias.***

1) No se pondrá en servicio ningún vehículo que no goce de la autorización municipal, para lo cual deberá ser previamente revisado en sus condiciones de seguridad, conservación y documentación por el correspondiente Departamento de Gobierno Vasco (ITV) y por el Ayuntamiento de Astigarraga.

2) Los vehículos adscritos al servicio se someterán a las revisiones ordinarias establecidas por la normativa vigente y a cuantas otras, de carácter extraordinario, sea convocada por el Ayuntamiento de Astigarraga.

Los vehículos que no superaran las revisiones a que fueren sometidos no podrán prestar servicios hasta que no se subsanen las deficiencias observadas, y así sea refrendado por los servicios de inspección municipal.

***Artículo 19. Función inspectora municipal.***

1) La función inspectora podrán ser ejercida de oficio o como consecuencia de denuncia formulada por entidad, organismo o por persona física interesada.

2) Udal ikuskatzaileek herri-agintariaren izaera izango dute, dagozkien eskumenen barruan jarduten badute, eta bere lana egiteko erabateko independentzia izango dute. Astigarragako Udalak bere antolaeraren arabera erabakiko du zein udal langilek beteko dituen ikuskatzaile lanak. Dena den, udaltzaingoko agente guztiak zerbitzuaren ikuskatzailetzaz hartuko dira, eta ez daukate bere izaera zertan aurkeztu beharrik lizentziaren jabeari edota soldatapeko langileari.

3) Nolanahi ere, bere lana modu eraginkorrean betetzeko, udal ikuskaritzak laguntza jaso dezake udaltzaingoaren aldetik, beste gorputz eta segurtasun indarren aldetik eta beste administrazioen ikuskaritza zerbitzuen aldetik.

4) Taxi lizentzien jabeek eta soldatapekoek erraztu egin behar dute behar bezala identifikatutako udal ikuskatzaileek ibilgailua eta dokumentazioa aztertzeko egin beharreko lana, ordenantza honen eta aplikagarria den legezko eta erregelamenduzko araudiaren arabera nahitaezkoa denean.

## IV. TITULUA

## ZERBITZUA ESKAINTZEA

## I. KAPITULUA.

## ZERBITZUA ESKAINTZEKO BEHAR DIREN AGIRIAK

***20. artikulua. Ibilgailuen agiriak.***

1) Ordenantza honek arautzen duen zerbitzua eskaintzeko, taxi ibilgailuek ondorengo dokumentazioa izan behar dute:

1.1. Ibilgailuari dagokionak:

a) Zerbitzu publikoko plaka.

b) Ibilgailuaren zirkulazio baimena.

c) Erantzukizun zibileko aseguruaren poliza.

d) Taximetroaren egiaztapen kartila, Eusko Jaurlaritzako dagokion sailak emandakoa.

e) Lizentzia eman izanaren udal ebazpena eta herriarteko zerbitzuak ematea gaitzen duen Gipuzkoako Foru Aldundiaren garraio baimena.

2) Las inspectoras municipales tendrán la consideración de autoridad pública, siempre que actúen dentro de las competencias que les son propias y gozarán de plena independencia en su actuación. El Ayuntamiento de Astigarraga determinará, de manera interna y ajustándose a su organización, el/la funcionario municipal que ejercerá dichas funciones de inspección. En todo caso, todo agente de la policía local se considerará persona inspectora del servicio, estando exento de mostrar acreditación ante la titular de la licencia y/o personal asalariado.

3) En todo caso, y para el eficaz cumplimiento de sus funciones, la inspección municipal podrá ser auxiliada por la policía local, otros cuerpos y fuerzas de seguridad, así como de los servicios de inspección de otras administraciones.

4) Las titulares de las licencias de auto taxi y, en su caso, las asalariadas están obligados a facilitar a las inspectoras municipales, debidamente identificados, el acceso a los vehículos y a la documentación que, de acuerdo con esta Ordenanza y la normativa legal y reglamentaria aplicable, sea obligatoria.

## TÍTULO IV

## DE LA PRESTACIÓN DEL SERVICIO

## CAPÍTULO I.

## DE LOS DOCUMENTOS NECESARIOS PARA LA PRESTACIÓN DEL SERVICIO

***Artículo 20. Documentación en los vehículos.***

1) Para la prestación del servicio que regula esta Ordenanza, los vehículos auto taxis deberá ir provistos de la documentación que se reseña a continuación:

1.1. Referentes al vehículo:

a) Placa de servicio público

b) Permiso de circulación del vehículo.

c) Póliza del seguro de responsabilidad civil.

d) Cartilla de verificación del aparato taxímetro, extendida por el Departamento correspondiente de Gobierno Vasco.

e) Resolución municipal otorgante de la correspondiente licencia y autorización de transporte expedida por la Diputación Foral de Gipuzkoa habilitante para la realización de servicio interurbanos.

1.2. Gidariari dagokionak:

a) Gidariaren egiaztagiria, lizentziaren jabe gisa edo soldatapeko gisa.

b) Gidabaimena, gidarien erregelamendu orokorrak eskatutako motakoa, Probintziako Trafikoko Buruzagitzak eginikoa.

1.3. Zerbitzuari dagokionak:

a) Erreklamazio liburua eta fakturen taloitegia, Udalak ezarritako diseinuaren arabera (lizentziaren zenbakia inprimatuta eramango du).

b) Taxiaren Euskal Legearen, horren Erregelamenduaren eta ordenantza honen aleak.

c) Tarifa ofizialen taula bi hizkuntzetan (euskara eta gaztelania). Udalak emaniko taula hori erabiltzaileen eskura egongo da eskatuz gero.

d) Trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko araudia, erregelamendua eta zirkulazio arloan indarrean dauden gainerako xedapenak.

e) Osasun-establezimenduen, polizia-etxeen, suhiltzaileen eta larrialdiko gainerako zerbitzuen helbideak, eta baita zentro ofizialena ere.

f) Astigarragako udalerriaren planoa eta kale-izendegia.

g) Ibilbide liburua eta hor idatziko dira egindako ibilbide guztiak eta bakoitza, eta baita kontratuaren datu esanguratsuenak ere.

h) Ibilgailuaren fitxa teknikoa (ibilgailuak jatorrian 5 eserleku izango ditu).

i) Kasu berezietan, hala nola, ibilgailuak leku gehiago behar duenean egindako egokitzapenak edo antzekoak (egokitutako ibilgailuak edo gasa edo ordezko energia jartzeko eraldatutako ibilgailuak, esate baterako), jatorrizko fitxa teknikoak 5 eserleku baino gehiago izan ditzake; dena den, aldatu egin behar da egindako egokitzapenaren arabera eta, azkenean, beti 5 eserleku izango ditu.

j) Ezinduentzako egokitutako ibilgailuen fitxa teknikoa eta homologazioa. Horiek 9 eserleku izan ditzakete gehienez, eskualdeko taxi batzordeak txostena egin ondoren.

k) Nahitaez eman beharreko tiket emailearen dokumentazioa.

1.2. Referentes a la conductora:

a) Credencial de persona conductora, ya sea como titular de licencia o como asalariada.

b) Permiso de conducción, de la clase exigida por el Reglamento General de Conductores, expedido por la Jefatura Provincial de Tráfico.

1.3. Referentes al servicio:

a) Libro de Reclamaciones y libro-talonario de facturas, de acuerdo con el diseño establecido por el Ayuntamiento y que, en todo caso, llevarán impreso el número de licencia.

b) Ejemplares de la Ley Vasca del Taxi, su desarrollo reglamentario y de esta Ordenanza.

c) Cuadro de tarifas oficiales en dos idiomas (euskera y castellano). Este cuadro facilitado por el Ayuntamiento deberá ponerse a disposición de las usuarias si fuese requerido.

d) Normativa sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial, Reglamento y demás disposiciones vigentes en materia de circulación.

e) Dirección de los emplazamientos de los establecimientos sanitarios, comisarías de policía, bomberos y demás servicios de urgencia, así como de los centros oficiales.

f) Plano y callejero de Municipio de Astigarraga.

g) Libro de ruta en el que se anotarán todos y cada uno de los itinerarios realizados así como los datos sustanciales del contrato.

h) Ficha técnica del vehículo que en origen será de 5 plazas.

i) En casos excepcionales por adaptación o similares en los que el vehículo deba disponer de más espacio (ej: Vehículos adaptados o transformaciones de vehículos para gas o energías alternativas que así lo necesiten), la citada ficha técnica de origen puede tener un número de plazas mayor a 5, aunque será necesario modificarla según el tipo de adaptación siendo siempre 5 el número final de sus plazas.

j) Ficha técnica y homologación de vehículos adaptados para minusválidos, los cuales podrán tener hasta un máximo de 9 plazas previo informe de la Comisión del Taxi de la Comarca.

k) Documentación relacionada con el expedidor de

l) Taximetroaren dokumentazioa.

ticket obligatorio.

l) Documentación relacionada con el aparato taxímetro.

## II. KAPITULUA

## 1. GERALEKUAK ETA TAXI-IRRATIAK

***21. artikulua. Geralekuak.***

1) Udaleko dagokion areak ezarri, aldatu eta kenduko ditu taxi zerbitzuko ibilgailuentzako geralekuak, alorreko elkarte esanguratsuak eta udal lizentzien jabeak entzun ondoren.

2) Geralekuek zerbitzu jarraitua eskainiko dute, dituzten ezaugarriak direla-eta ordutegi zehatz baten funtzionatzen dutenak izan ezik (egoera hori geralekuko zutabean adieraziko da).

3) Udal lizentzien jabe guztiek egunero joan behar dira geralekura edo geralekuetara, atseden egunetan, oporretan edo eskatzen den moduan arrazoibidea egiaztatzen denean izan ezik.

Horretarako, Udalak Alkatetzaren Dekretu bidez zerbitzua ematea antola dezake, geralekuetan edo geralekuan nahitaez egon beharreko txanda ezarrita eta eguneko edota gaueko guardia nork egin behar duen adierazita edo zerbitzua eskaintzea bermatuko duen beste edozein sistemaren bidez.

## CAPÍTULO II

## DE LAS PARADAS Y DE LOS RADIO-TAXI

***Artículo 21. Paradas.***

1) El establecimiento, modificación y supresión de las paradas para los vehículos del servicio de taxi se efectuará por el Área correspondiente del Ayuntamiento, previa audiencia de las Asociaciones representativas del sector así como titulares de licencias municipales.

2) La/s parada/s deberán prestar servicio ininterrumpido, salvo aquellas que por sus características funcionen en un horario concreto indicándose éste en el poste de la parada.

3) Todas las titulares de licencias municipales están obligados a acudir diariamente a la/s parada/s, salvo días de descanso, vacaciones o que exista justa causa acreditada en la forma que se exija.

A tal efecto, mediante Decreto de Alcaldía, el Ayuntamiento podrá ordenar la prestación del servicio señalando turno de presencia obligatoria en la/s parada/s e indicando las titulares de guardia en horario diurno y/o nocturno o a través de cualquier otro sistema que garantice la prestación del mismo.

***22. artikulua.- Taxi irratia***

